

Esp. Zkia.- z/g
E.E.- 2023-00143**094/2023 DEKRETU ZENBAKIA:**

Larrabetzuko udaletxean, 2023ko martxoaren 3an.

OINARRIA: 2013ko abenduaren 24an, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan beharrian ekonomikoak dituzten Larrabetzuko familiei diru-laguntza emateko zuzentarauak jasotzen dauan ordenantzearen behin betiko onespena.

OINARRIA: Behin betiko izaerarekin onartutako 2023ko ekitaldi ekonomikorako udal aurrekontuaren 230.48001 zenbakiko aurrekontu-partidea dago, 4.000,00 euroko zenbatekoagaz laguntza-programa horretarako.

Erantsitako dokumentazinoa aztertuta, eta Diru-laguntzei buruzko zemendiaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikuluan eta gaitasun ekonomiko txikia daukien personentzako laguntza ekonomikoen programea arautzen dauan ordenantzearen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, **HAU EBATZI DOT:**

LEHENENGOA.- Beharrian ekonomikoak dituzten Larrabetzuko familiei diru-laguntza programaren 2023ko deialdia onartzea, aurrekontuaren 230.48001 aurrekontu-partidan ezarritakoaren arabera, 4.000,00 euroko kredituagaz. Deialdia Dekretu honetan l eranskin bezala agertzen da.

BIGARRENA.- Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalerrriaren web-orrialdean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Osoko Bilkureak egingo dauan hurrengo bileran ebazpen honen barri emongo da.

Iñigo Gaztelu Bilbao
AlkateaNire aurrean,
Idazkaria

I ERANSKINA

Beharrian ekonomikoak dituzten Larrabetzuko Familiei diru-laguntzaren deialdia

1.- Diru-laguntzaren objektua.-

Diru-laguntza honen xedea egoera ekonomiko estuan dagozan Larrabetzuko zenbait familiaren krisiak eragindako egoera ekonomikoa arintzeko laguntza ekonomikoak arautzea da. Honako honeek izango dira diruz lagundu leintekizan gastuak:

- 1.- Ur, zabor eta estolderia tasa publikoak.
- 2.- Ohiko bizilekuari jagokon ondasun higiezinaren ganeko zergea.

2.- Onuradunak.-

Laguntza horreen onuradunak izan ahalko dira bizikidetzat unitatearen derrigorrezko ordainketei eta lehen mailakoei aurre egiteko nahikoak ez diran baliabide ekonomikoak daukiezan Larrabetzuko auzokoak, estutasun ekonomikoko egoera hori larriagotzea eragotzita.

Lan kolokatasuneko egoera zehazteko, oinarritzko irizpidetzat hartuko da lanbide arteko gitxieneko soldatea.

Onuradunen ezinbesteko baldintzak:

- Adinez nagusia izatea.
- Larrabetzun erroldatuta egotea urtebeteko antzinatasunean.
- Behar beste baliabide edo diru-sarrera ez izatea, estutasun ekonomikoko egoera ekarrita.

ANEXO I

Convocatoria de subvenciones a familias de Larrabetzu con necesidades económicas

1.- Objeto de la subvención.-

El objeto de la presente convocatoria es regular las ayudas económicas para aliviar la situación económica de algunas familias de Larrabetzu producidas por la crisis. Los gastos subvencionables son los siguientes:

- 1.- La tasa pública de aguas, basura y saneamiento.
- 2.- El impuesto de bienes inmuebles de la vivienda habitual.

2.- Beneficiarios.-

Son beneficiarios de la subvención los vecinos de Larrabetzu cuyos recursos económicos resulten insuficientes para hacer frente a los pagos obligatorios y de primera necesidad de la unidad de convivencia, impidiendo que se agrave su situación de precariedad económica.

Para determinar la situación laboral, se tendrá como criterio básico el salario mínimo interprofesional.

Condiciones mínimas de los beneficiarios:

- Ser mayor de edad.
- Estar empadronado en Larrabetzu con una antigüedad de un año.
- No disponer de medios económicos, ni ingresos suficientes, que presuman una situación de precariedad.

- Diruz lagundu leintekizan gastuen titularra izatea.

3.- Diru-laguntzaren aurrekontua.-

Deialdi honen oinarria den diru-laguntza emateko Larrabetzuko Udalak 4.000,00 euroko aurrekontua dauka 230.48001 aurrekontu partidaren kontra joango dena, 2023ko ekitaldi ekonomikorako Udal Aurrekontu Orokorrari jarraituz.

4.- Eskariaren aurkezpena.-

a).- Eskabidea, udaleko alkate udalburuari zuzenduta, udalaren sarrera Udal erregistroan aurkeztuko da, edo Administrazio Prozedura Erkidearen araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 39/2015, Legearen 16 eta 66. artikuluetan ezarritako bideetako edozeinetatik. Interesdunek eskaria aurkezteko hilabete bateko epea izango dute, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Modu elektronikoa aurkeztekotan hurrengo egoitza elektronikoa: <http://www.larrabetzu.eus/eu-ES/lzapideak/Orrialdeak/default.aspx>.

b).- Eskabidearekin batera, honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- Diru-laguntzearen eskabide normalizatua. (I ERANSKINA)
- Eskatzailearen eta famili unitatearen nortasuna akreditatzen duten agiriak.
- Ogasunaren 016 modeloko ziurtagiria.

- Ser titular de los gastos subvencionables.

3.- Presupuesto de la subvención.-

Para la concesión de la Ayuda recogida el Ayuntamiento de Larrabetzu incorpora al presupuesto municipal para el ejercicio 2023 la partida presupuestaria número 230.48001 con un presupuesto de 4.000,00 euros.

4.- Presentación de solicitudes.-

a).- La solicitud, dirigida al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento, se presentará en el Registro General de Entradas, o en alguno de los modos señalados en los artículos 16 y 66 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común. Los interesados podrán presentar la solicitud en el plazo de un mes desde la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia. La presentación podrá hacerse mediante sede electrónica en: <http://www.larrabetzu.eus/eu-ES/lzapideak/Orrialdeak/default.aspx>.

b).- Junto con la solicitud deberán presentar los siguientes documentos:

- Solicitud de la subvención en documento normalizado. (ANEXO I)
- Documentos acreditativos de los miembros de la unidad de convivencia.
- Certificado del modelo 016 de Hacienda.

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Eskatzailearen aitortpen arduratsua, soldatak, langabezia prestazioak edo pentsioak ez diran bestelako diru-sarrerak dagozala ala ez dagozala adierazoten dauana. Horrez gain, beren beregi aitortuko da alde batetik, onuradunak ez duela jasotzen zuzentarauen 3. artikuluan zehaztutako diru-laguntza gastuetarako bestelako diru-laguntzarik; eta bestetik, aitortu diren ondasunez gain ez dituela onura ekonomikoak ekarri ahal dituen bestelako fondo edo ondasunik. - GSInek azken bost urteetan egindako kotizazinoei buruz egindako txostena, beharrezkoa bada. - Bizikidetzaren unitate osoaren erroldatze ziurtagiriak eta danak etxebizitza berean bizi dirala egiaztetan dauan ziurtagiria. - Familia liburua edo izatezko bikotearen ziurtagiria, hori badago. - Diruz lagunduko dan ekitaldiko diruz lagundu leintekezan gastuei jagokezan ordainketen frogagiriak. - Eskatzaileak akreditatzea jotzen dituen bestelako dokumentuak. | <ul style="list-style-type: none"> - Declaración responsable en la que se manifiesta no tener otros ingresos que no sean salarios, prestaciones por desempleo o pensiones. Además, se declara de forma expresa: por un lado, que no se recibe ninguna otra subvención para financiar los gastos del artículo 3 de las bases reguladoras; y por otro lado, que no dispone de otros fondos o bienes que puedan producir beneficios económicos. - Informe de cotización de los últimos 5 años emitido por el INSS, si este fuere necesario. - Certificados de empadronamiento de toda la unidad de convivencia y certificado de que todos viven en la misma vivienda. - Libro de familia o certificado de parejas de hecho, si lo tubieren. - Facturas de los gastos subvencionables del ejercicio económico que se pretende subvencionar. - Otra documentación acreditativa que el solicitante estime oportuna. |
|---|---|

c).- Artikulu honetan zerrendatutako dokumentu eta datuez gain, Udalak, kasu zehatz bakoitzari jaramon egiteko beste dokumentu osagarri batzuk eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, aurkeztutako proiektua osorik baloratzeko egokitzat jotzen badu.

c).- Además de los documentos y datos indicados, el Ayuntamiento de Larrabetzu podrá recabar más datos en cada caso concreto, siempre que se considere necesario para la valoración completa del proyecto.

5.- Eskaria egiteko epea.-

Eskaria aurkezteko hilabeteko epea egongo da deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera.

6.- Instrukzio organoa.-

Larrabetzuko Udaleko ongizate saila. Instrukzioan zehar udaletxeak aholkularitza emateko aukera zabalduko die interesdunei.

7.- Ebazpen organoa.-

Larrabetzuko Udaleko Alkatea.

8.- Diru-laguntzaren kudeaketa.-

Diru-laguntzea deialdia argitaratzen dan ekitaldiaren aurrekorako eskatuko da, egingo diran gastuen aurreikuspena prestaut.

Diru-laguntzea emateko prozedura ebazteko epea 3 hilabetekoa izango da.

Interesdunek diru-laguntzea eskatu ostean, Larrabetzuko Udalak egiaztatu dau interesdunek behar bezala ordaindu dabezala aurkezturiko ordainagiriak, eta zergen eta diruz laguntzen diran tasen erakunde kudeatzaileek dokumentazio hori bialduko dabe. Alderdi horreen ganeko justifikazio txostena egingo da.

Interesdunek egindako ordainketak egiaztatu eta gero, Larrabetzuko Udalak diru-laguntzearen % 100 ordainduko dau.

9.- Diru-laguntzaren arauketa.-

5.- Plazo de presentación de solicitudes.-

El plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la publicación de la solicitud en el Boletín Oficial de Bizkaia.

6.- Organo de Instrucción.-

Departamento de bienestar del Ayuntamiento de Larrabetzu. Durante la instrucción el Ayuntamiento podrá asesorar a los interesados.

7.- Organo para la Resolución.-

El Alcalde del Ayuntamiento de Larrabetzu.

8.- Gestión de la Subvención.-

La subvención se otorgará para el ejercicio anterior al de la convocatoria, habiéndose preparado la previsión del gasto a realizar.

El plazo para resolver el procedimiento de las subvenciones será de 3 meses.

Tras la solicitud de la subvención por los interesados, el Ayuntamiento de Larrabetzu verificará si las facturas han sido abonadas correctamente y las entidades gestoras facilitarán al Ayuntamiento dicha documentación. Sobre ese extremo se hará el informe correspondiente.

Tras la verificación y comprobación del gasto realizado por los interesados, el Ayuntamiento de Larrabetzu abonará el 100% de la subvención.

9.- Régimen de la Subvención.-

Deialdian araututa ez dagoena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2013ko abenduaren 24an argitaratutako zuzentarauetan oinarrituko da. Horrez gain, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legea eta hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua adierazten dutena aplikatu egingo da.

En lo no recogido en la presente convocatoria se estará a lo dispuesto en las bases reguladoras publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia de 24 de diciembre de 2013. Además serán de aplicación la Ley 38/2003 General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006 que la desarrolla.

I ERANSKINA / ANEXO I

BEHARRIZAN EKONOMIKOAK DITUZTEN LARRABETZUKO FAMILIEI DIRU LAGUNTZA

ERREGISTRO ZKIA:
DATA:

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

Izen-deiturak / Nombre y apellidos			NAN /DNI
Helbidea / Domicilio		Herria / Municipio	
Posta kodea / C.P	Probintzia/Provincia	e-posta / e-mail	Telefono zk./Nº teléfono
Noren izenean / En representación de			IFK / NIF – NAN / DNI
Helbidea / Domicilio		Herria / Municipio	
Posta kodea/ C.P	Probintzia/ Provincia	e-posta / e-mail	Telefono zk./Nº teléfono

ESKAERA/PETICIÓN:

_____Ekitaldiko gastuei aurre egiteko diru laguntza.

ERANSTEN DIREN AGIRIAK/ DOCUMENTOS QUE SE ADJUNTAN

	NAN FOTOKOPIA/ Fotocopia DNI
	Gastuen frogagiriak / Justificantes de gastos subvencionables

DATA / FECHA

SINADURA / FIRMA

DATUEN BABESA: Eskabide-orri honetan agertzen diren datuak interesdunaren baimenarekin jasoko dira, tratamendu automatizatua izango dute eta Larrabetzuko Udalaren fitxategi egokian sartuko dira. Datu horiek udal kudeaketarako baino ez dira erabiliko, baina beste herri administrazio batzuei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan iurrezarritako kasuetan. Interesdunak nahi badu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezeztatzeko eskubidea erabili ahalizango du aipatutako Legean ezarritako moduan.

PROTECCIÓN DE DATOS: Los datos recogidos en la presente instancia/solicitud son recogidos con el consentimiento de la persona afectada y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al correspondiente fichero propiedad del Ayuntamiento de Larrabetzu. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de carácter personal. Si lo desea, podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación y cancelación en los términos previstos en la mencionada Ley.

IZAPIDETZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA/ DOCUMENTACIÓN A APORTAR PARA LA TRAMITACIÓN

- 1) Dirulaguntza eskatzeko eskabide-orria ([udal-eredua](#)) / Impreso de solicitud de ayuda económica ([modelo municipal](#)).
- 2) Eskabidea aurkezten duenaren NAN fotokopia eta ordezkaritza adierazten duen dokumentua. / Fotocopia del DNI de la persona que presenta la solicitud y documento que acredite su representación.
- 3) Diruz lagunduko den ekitaldiko diruz lagundu leitekezan gastuei jagokezan ordainketa frogagiriak / Justificantes de gastos correspondientes al ejercicio subvencionable

DOKUMENTAZIO EGIAZTAGARRIA (ez da aurkeztu behar)/ DOCUMENTACIÓN VERIFICABLE (no hay que aportar)

Larrabetzuko Udalak, eskura dituen datuen bitartekotza-sistemen bidez, beste administrazio batzuen esku dauden dokumentu hauei buruzko kontsultak eta/edo egiaztapenak egingo ditu, salbu eta berariaz aurka egiten baduzu (kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu beharko duzu):

El Ayuntamiento de Larrabetzu, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, realizará las consultas y/o verificaciones de los siguientes documentos en poder de otras Administraciones, salvo que Vd se oponga expresamente (en cuyo caso deberá aportar la documentación):

- 1) Nortasun Agiri Nazionala (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) / Documento Nacional de Identidad (DNI) o Número de Identificación de Extranjeros (NIE)
- 2) Aurreko urteko errenta aitortpena / Declaración de la renta del ejercicio anterior (IRPF).
- 3) GSNlek azken 5 urteetan egindako kotizazinoei buruz egindako txostena/ Informe de las cotizaciones de los últimos 5 años del INSS
- 4) GSNlek azken 5 urteetan egindako kotizazinoei buruz egindako txostena/ Informe de las cotizaciones de los últimos 5 años del INSS
- 5) Bizikidetza unitate osoaren erroldatze ziurtagiriak eta danak etxebizitza berean bizi dirala egiaztetan dauan ziurtagiria/ Certificados de empadronamiento de toda la unidad de convivencia y certificado de que todos viven en la misma vivienda.
- 6) Familia liburua edo izatezko bikotearen ziurtagiria, hori badago / Libro de familia o certificado de parejas de hecho, si lo hubiera.

Nire datuak kontsultatzeari uko egiten diot, eta arrazoi hauek ematen ditut: Me opongo a la consulta de mis datos, alegando los siguientes motivos: _____
